

2. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA

1. definizioa:

"Ikastetxean, elkarbultzaz ulertzen da hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harremanek osaturiko sarea, non komunikazioa, sentimendua, balioa, jarrera, rola, estatusa eta boterearen prozesuak eratzen diren." (R. Ortega, 1997).

2. definizioa:

"Hezkuntza-komunitateko kideen arteko elkarbizitza baketsua; alegia, haien arteko harreman positiboa, eta hezkuntza helburuak, ikasleen garapen integralaren aldeko giroan, behar bezala bete ahal izateko aukera ematen duena". (Hezkuntza Ministerioak Eskola Elkarbizitzari buruz).

3. definizioa:

Eskola-erakundeetan sortzen den harreman-giroa da. Esan dezakegu denbora/leku batean (eskola) ideia edota helburu batekin (heziketa eta ikasleen prestakuntza) garatzen den gizarte-harremanen sare bat dela, eta bertan parte hartzen duten eragileei (irakasleak, ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak) dei egiten die lankidetzan aritzeko gai izan daitezen; hau da, batera lan egin dezaten eta elkarri lagun diezaioten kideen arteko harremanak eta loturak sortzen.

4. definizioa:

Elkarbizitza positiboa hezkuntza-komunitateko kide guztien partaidetza sustatzen duena da, gizarte- eta harreman-arauak adostuz, arazoak konpontzeko azterketa-gune eta uneak sortuz eta ikastetxeko proiektuaren parte sentituz.

5. definizioa:

Eskolako elkarbizitzak, gure ikastetxean, Hezkuntza Komunitateko kideen arteko harremanak arautzen ditu: ikasleak, irakasleak, familiak, zuzendaritza-taldea, irakasleak ez diren langileak, ikastetxean eragiten duten edo lankidetzan ari diren erakundeak...; eta proiektuan adierazten den bezala, ikasleen garapen integrala eta soziala lortzeko jarduerak elkarri jakinarazi eta koordinatzeko helburua du. Gure ikastetxeko elkarbizitza positiboak, oinarri hauek ditu: ikuspegi inklusiboa, onarpena, desberdintasunak errespetatzea, partaidetza, elkarbizitza, sozializazioa... eskola-giro positiboa lortu eta zaintzeko.